# *Lan-eskaintzen erregistroa 2026ko urtarrilean*

## • ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 1.005 eskaintza erregistratu dira 2026ko urtarrilean, abenduan baino 323 eskaintza gehiago eta 2025eko urtarrilean baino 263 gutxiago.

## • LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2026ko urtarrilean 201 eskaintza erregistratu dira Araban, 392 Bizkaian eta 412 Gipuzkoan. Beraz, eskaintzen % 20,00a Arabako KAUetan erregistratu da, % 39,00a Bizkaian eta % 41,00a Gipuzkoan.

**Eskaintzaren Lurralde Historikoa**




Aurreko hilabetearekin konparatuz, hiru lurraldeetan egin dute gora eskaintzek: % 28,95eko igoera Bizkaian (+88 eskaintza), % 60,94koa Gipuzkoan (+156 eskaintza) eta % 64,75ekoa Araban (+79 eskaintza).

Iazko hil beraren aldean, eskaintzen kopuruak behera egin du Bizkaian (-76 eskaintza, -% 16,24) eta Gipuzkoan (-192 eskaintza, -% 31,79). Araban, berriz, eskaintzen kopuruak gora egin du, aurreko urteko urtarrilean baino 5 eskaintza gehiago lortuz (+% 2,55).

## • ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn eskaintza gehien erregistratu dituen profila teknikari zientifikoena izan da 183 eskaintzekin (guztizkoaren % 18,21a). Ondoren, laguntza-teknikarien profilari dagokio, 179 eskaintzekin eta % 17,81eko pisuarekin.

Kualifikaziorik gabeko langileek, zerbitzuetako okupazio-profilek eta industriako okupazio-profilek ere ehunekotan pisu esanguratsua dute, % 10,00etik gorakoak, erregistratutako eskaintzen bolumenaren ehunekoak % 17,21, % 16,42 eta % 13,43 izanik, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien dituzten profilak zuzendaritzakoak eta lehen sektorekoak izan dira berriz ere, biak urtarrilean 7 eskaintza erregistratuz.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, okupazio guztien eskaintza kopuruan igoera erregistratu da. Balio absolutuetan igoera handienak izan dituzten eskaintzak laguntza-teknikarienak (+78 eskaintza, +% 77,23), kualifikaziorik gabekoenak (+62 eskaintza, +% 55,86) eta makineriako operadoreenak (+48 eskaintza, +% 129,73) izan dira.

Urte arteko saldoari dagokionez, alderantzizko joera jaso da, eta jaitsiera egon da eskaintza guztietan. Balio absolutuetan egondako beherakada handienak zerbitzuetako okupazio-profiletan (-52 eskaintza, -% 23,96), industriakoetan (-47 eskaintza, -% 25,82) eta kualifikaziorik gabekoetan (-47 eskaintza, -% 21,36) jaso dira.

## • KONTRATAZIO MOTA

Urtarrilean erregistratutako eskaintzen % 41,99a mugagabe motatakoak izan dira, eskaintzen % 57,51a aldi baterakoak eta gainerako % 0,50a merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoak % 52,90 egin du gora abenduarekin alderatuta, baina % 21,56ko jaitsiera izan du aurreko urteko hilabete berdinarekin alderatuz gero.




Mugagabeko eskaintzak, termino absolutuetan, 422 izan dira, hau da, abenduan baino 146 eskaintza gehiago. Aldi baterako eskaintzen kopurua 578koa izan da urtarrilean, aurreko hilabetean baino 175 gehiago. Azkenik, merkataritza-eskaintzei dagokionez, 5 egon dira urtarrilean, aurreko hilabetean baino 2 gehiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, hiru kontratu motetan jaitsiera erregistratu da. Kontratu mugagabeen eskaintzen kasuan 116 gutxiago jaso dira (-% 21,56), aldi baterako kontratuetan 146 eskaintzatako jaitsiera egon da (-% 20,17) eta merkataritzako kontratuetan eskaintza bakar bat galdu da 2025eko urtarrilarekin alderatuz gero (-% 16,67).

## • ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

Urtarrilean erregistratu diren eskaintzen % 78,71ak, hau da, 791 eskaintza, 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen du. Erregistratutako eskaintzen % 12,34ak (124 eskaintza) 6 eta 12 hilabete bitarteko esperientzia eskatzen du. Ehunekoak txikiagoak dira esperientzia handiagoa eskatzen duten eskaintzen artean, hala nola 1 eta 3 urte bitartean eskatzen dituztenak, % 6,37ko pisuarekin (64 eskaintza), 3 eta 5 urte bitartean eskatzen dituztenak, % 2,39ko pisuarekin (24 eskaintza), eta 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dituztenak, guztizkoaren % 0,20ko pisuarekin (2 eskaintza).




Hilabete arteko alderaketari dagokionez, eskaintza gehienek izan dute bilakaera positiboa. Igoera esanguratsuena izan duten eskaintzak 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen dituztenak izan dira, abenduan baino 270 eskaintza gehiagorekin eta % 51,82ko igoera erlatiboarekin. Ondoren, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dituztenei (+53 eskaintza, +% 74,65) eta 1 eta 3 urte bitartekoei dagokie (+7 eskaintza, +% 12,28). 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dituztenetan 5 eskaintzetako jaitsiera egon da (-% 17,24) eta 5 urte baino gehiago eskatzen dituztenetan, jaitsiera 2 eskaintzetakoa izan da (-% 50,00).

Urte arteko bilakaerari dagokionez, 6 hilabete baino gutxiagoko esperientzia eskatzen duten eskaintzetan jaitsiera nabarmenena egon da, 205 eskaintza gutxiagorekin (-% 20,58). 6-12 hilabeteko esperientzia eskatzen dituztenetan 28 eskaintzatako jaitsiera egon da (-% 18,42), 1 eta 3 urte bitartekoa eskatzen dituztenetan 29koa (-% 31,18) eta 5 urte baino gehiagokoa eskatzen dituztenetan 2 eskaintzatakoa izan da (-% 50,00). 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dituztenak iraunkor mantendu dira, 2025eko urtarrilean baino eskaintza bat gehiago jasoz (+% 4,35).

## • LANALDI MOTA

Ezer baino lehen, aipatu behar da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten zer lanaldi egin behar den eskaintzak erregistratzeko orduan. Urtarrilean erregistratutako eskaintzen % 14,63ak bakarrik adierazi du lanaldia, hau da, 1.005 eskaintza guztietatik, soilik 147. 147 eskaintza horietatik, 118 lanaldi osokoak izan dira, eta gainerako 29ak lanaldi partzialekoak.




Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzetan % 31,11ko igoera egon da abenduarekin alderatuz, hau da, 28 eskaintza gehiago. Lanaldi partzialeko eskaintzei dagokionez, 3 gehiago jaso dira, % 11,54ko igoera.

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, lanaldi osoko eskaintzek % 9,23ko jaitsiera izan dute (12 eskaintza gutxiago) eta lanaldi partzialekoak % 12,12koa (4 eskaintza gutxiago).

## • ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hilabete honetan 11 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilabetean baino 1 gutxiago eta aurreko urteko urtarrilean baino 3 gutxiago.

## • ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle hau eskaintzak erregistratzeko orduan beti zehazten ez den beste alderdietako bat da. Urtarrilean, eskaintzen % 87,86ak, hau da, 883 eskaintza, ez du zehaztu eskatutako gutxieneko prestakuntza-maila. Beraz, 1.005 eskaintzetatik soilik 122 adierazi dute lanpostuko zereginak betetzeko eskatzen den gutxieneko prestakuntza maila.




122 eskaintza horietatik 48 Lanbide Heziketak eskatzen dituzte, gehien eskatutako maila izanda (% 4,78). Ondoren, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak datoz, 35 eskaintzekin (% 3,48); derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenetan 30 eskaintza jaso dira (% 2,99); azkenik, batxilerra eskatzen dituztenak, 9 eskaintzekin (% 0,90).

Abenduarekin alderatuta, eskaintza guztietan erregistratu da igoera, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenetan izan ezik, 3 eskaintza gutxiago jaso baitituzte (-% 7,89). Derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenetan 6 eskaintza gehiago jaso dira (+% 25,00), Lanbide Heziketak eskatzen dituztenetan 4 gehiago (+% 9,09) eta batxilerra eskatzen dituztenetan bakar bat gehiago (+% 12,50).

Urte arteko bilakaerari dagokionez, jaitsiera egon da eskaintza guztietan. Erregistratutako jaitsiera nabarmenena unibertsitate ikasketak eskatzen dituztenetan izan da, 39 eskaintza gutxiagorekin (-% 52,70). Ondoren, Lanbide Heziketakoak, 24 eskaintza gutxiago jasoz (-% 33,33), derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenak, 14 gutxiagorekin (-% 31,82), eta batxilerra eskatzen dituztenak, ezta jaitsierarik ezta hazkunderik gabe, aurreko urteko urtarrilean jasotako eskaintza kopurua berdinduz.

## • ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan urtarrilean erregistratu diren eskaintzen bolumenagatik gehien nabarmentzen den jarduera Osasun-jarduerak eta Gizarte Zerbitzuak izan da 181 eskaintzekin, hilabeteko eskaintza guztien % 18,01a errepresentatuz. Ondoren, Handizkako eta txikizkako merkataritza dator, 121 eskaintzekin eta % 12,04ko pisuarekin, eta Jarduera administratiboak, 114 eskaintzekin eta % 11,34ko pisuarekin.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, eskaintza gehienetan egon da hazkundea. Igoera handiena izan duen jarduera Osasun-jarduerak eta Gizarte Zerbitzuak izan da, abenduan baino 101 eskaintza gehiago jasoz (+% 126,25). Ondoren, Jarduera administratiboak, 54 eskaintza gehiagorekin (+% 90,00), eta Manufaktura industriak, 48 eskaintza gehiagorekin (+% 80,00).

2025eko urtarrilarekin alderatuta, aldiz, jarduera guztietan egon da jaitsiera, Jarduera artistikoan, jolaserakoan eta entretenimenduzkoan izan ezik, 9 eskaintza gehiago lortuz (+% 56,25). Erregistratutako jaitsiera nabarmenena Jarduera administratiboko eskaintzetan izan da, 2025eko urtarrilean baino 67 eskaintza gutxiagorekin (-% 37,02). Ondoren, Manufaktura industriak, 57 eskaintza gutxiagorekin (-% 34,55), eta Handizkako eta txikizkako merkataritza daude, 24 eskaintza gutxiagorekin (-% 16,55).